




Sortu diren enpresen kopurua handitu da

EAEEn sortutako enpresak

Urte bakoitzeko urtarriletik uztaiera bitartean




Iturria: INE.

Aurtengo lehen zazpi hilabeteetan Euskadin eratutako enpresen kopurua %3,1 handitu zen aurreko urteko aldi beraren aldean. Hain zuzen ere, 1.953 sozietate berri eratu dira. Beraz, 2.000 inguruko zifretan mantendu da, azken urteetan bezala, salbuespen bakarra 2020ko urtea izan zelarik.

Beste gorakada bat aireko trafikioan

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak

Urte bakoitzeko abuztua. Milakoak




Iturria: AENA.

Abuztuan, EAEko aireportuetatik bidaiatu zuten pertsonen kopurua %17,0 igo zen, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Zehazkiago adierazita, 750.000 pertsona baino gehiago abiatu ziren beraietatik, serie historiko osoko abuztu bateko baliorik handiena baita.



KPlak goranzko joerari eutsi dio

EAEko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

Abuztuko KPlaren urte arteko aldakuntza tasa %2,7 izan zen, aurreko hilekoa baino hamarren bat handiagoa. Adierazle horren igotze bidez ere ibilgailuentzako erregaietan izandako igotzeak eragin zuten. Beste aldetik, azpiko inflazioak %6,3ko erregistroa jaso zuen.

EAEko merkataritzaren salmentak %3,0 jaitsi ziren

Merkataritza indizea
Urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoa



Iturria: Eustat.

Aurtengo bigarren hiruhilekoan, EAEko merkataritza sektoreko salmentak %3,0 jaitsi ziren aurreko urtearen aldean. Hala ere, sektoreko enpleguaren bilakaera nabarmendu behar da, hazkunde tasa positiboak jasotzen jarraitu baitzuten (%1,4).